

IRLANDA: ORANMORE



Oranmore herria –Órán Mór - Galwayko konderrian kokatzen den herria da, Galway hiritik 10 kilometrora dagoena.

Hilabeteko egonaldia

Adina: 13-17 urte

Datak: uztailak 5 – abuztuak 2

**Prezioa: 2500€ ikasle federatuek
2800€ gainontzekoek**

Prezioan barne:

- Bidaia hegazkinez.
- Irlandan garraioa.
- Familiar ostatua. Mantenu osoa.
- Txangoak.
- Ekintza sozialak eta kulturalak.
- Hezitzaileen laguntza.
- Multiasistentzia aseguru.

Programa

Irlandan murgiltze programa berezia aurkezten dizue Ikastolen Elkartek. Oranmore herriko Gaelscoil de hÍde ikastolarekin dugun elkarlanetik abiatuta, gazteek 4 astez ingeleraren eta Irlandar kulturaren lanketa sakona egiteko aukera izango dute, proiektu, ekintza eta txango desberdinen bitartez, programaren antolakuntzan inolako bitartekaririk gabe.

- **OSTATUA** Ardura handiz hautatutako eta Gaelscoil de hÍde ikastolako familietan ostatu hartuko dute ikasleek, mantenu osoan.
- **EKINTZAK** Ikasleek egunero, elkartek edota hezitzaileek antolatutako kirol, sozial edota kultur ekintzetan parte hartuko dute. Ekintza hauek taldean eta askotan familiarekin eta bizilagunekin gozatzeko aukera izango dute. Honetaz gain Irlandako leku interesgarrietara ere txangoak egingo dituzte.
- **HEZITZAILEAK** Taldearekin gurekin esperientzia handia duten hezitzaileak joango dira. Hauek, ikasleak bezala, inguruko beste familietan egongo dira eta une oro ikasleak laguntzeko prest egongo dira. Honetaz gain, hilean programatuta dauden irteera eta ekintzetan parte hartuko dute. Hezitzaileek, arreta pertsonalaren bidez, ikasleak egonaldiari ahalik eta etekin handiena ateratzea dute helburu.
- **ASEGURUA** "Ikaseguruak" estaldura handiko multiasistentzia aseguruia kudeatzen dugu ikasleentzat zein hezitzaileentzat. Honetaz gain, ikasle bakoitzak bere Europar Osasun Txartela tramitatu beharko du.
- **PASAPORTEA** Egonaldian parte hartzeko pasaportea ezinbestekoa da. Ikaslearen ardura da eguneratuta izatea.



Egonaldiaren arduradunak eta familiei arreta

Ikastolen Elkarteko ordezkari eta koordinatzaileez gain, ikasle taldea arretaz hautatu eta irakatsitako hezitzaileekin doaz.

- Ikastoletako ikasleekin joango diren hezitzaileak programa hauetan esperientziadunak dira.
- Eleanitzak dira; hortaz, edozein egoera desberdinari aurre egiteko gai dira.
- Hezitzaileak aurretik ikasle hauen ardura izateko beharrezkoak diren konpetentziak bereganatuta izango ditu.
- Bere ardurapean dauden ikasleen ezaugarriak ezagutzen dituzte, eta egunero hauen jarraipen zuzena egiten dute.
- Egonaldia dirau bitartean, eguneroko harremana daukate Ikastolen Elkarteko arduradunarekin. Honetazgain, hezitzaileek urgentzietarako 24 orduko telefonoa dute eskura, larrialdi baten aurrean ahalik eta ondoen erantzun ahal izateko.



Programaren zatiak

Programa honek hiru aldi desberdin dituela kontuan hartzea ezinbestekoa da:

1. Egonaldiaren prestaketa.
2. Atzerriko egonaldiak irauten duen tartekoa.
3. Egonalditik etorri eta gero, zuen balorazioa egiteko aldia.

Ikastolen Elkartetik gurasoentzako arreta ahalik eta zehatzena izatea da gure helburua, eta horregatik bai gurasoek bai ikasleek Ikastolen Elkarteko arduradunaren eta hezitzaileen telefono zenbakia eskura izango dute. Honetaz gain, ikasleak atzerrian dauden tartean, edozein gertakari dela eta, Ikastolen Elkartea gurasoak informatzeaz arduratuko da.

Informazio banaketa

Ekainaren bukaeran argibide bilera izango dugu ikasle eta gurasoentzat.

Bilera honetan atzerrira taldearekin joango diren begiraleak aurkeztuko dizkizuegu. Horrez gain, programa honi dagokion dokumentazioa emango dugu. Bertan puntu hauek garatuko ditugu.

- Zure seme edo alabari dagozkion familiaren datu konkretuak.
- Hezitzaile eta koordinatzaileen helbide eta telefonoak.
- Hegaldien ordutegiak eta elkarguneak.
- Ekintzen egutegia.
- Aseguru-poliza
- Ikasleentzat gomendioak.

Horrez gain egonaldiarekin lotutako hainbat gai landuko ditugu elkarrekin, besteak beste klima, ekipajea, kultur desberdintasunak, telefonoa ... Bilera bukatu baino lehenago bai ikasleek zein gurasoek izan ditzakezen zalantzak argituko dizkizuegu.

- Talde txikiak kudeatzen ditugu, beraz, plazak mugatuak dira.
- Arreta telefonoz egiteaz gain, aurrezko aurreko bilerak egitea ere aukeran dago. Beraz, zalantzarik izanez gero edota matrikula egin nahi izanez gero jarri zaitezte gurekin harremanetan:

Telefonoz: **94.435.43.40 (June Rivas)**

Emaillez: **enjoy@ehi.ikastola.eus**

Bulegoko helbidea: **Ikastolen Elkartea Aoiz Plaza 1, 4.pisua 48015 Bilbo**



ATZERRIKO EGONALDIAK Irlanda

Irlandar kulturaren eta ingelesean murgiltzeko aukera paregabea eskaintzen duen egonaldia. Egonaldiak 4 astez Irlandan egingo dira.

norentzat: 13 eta 17 urte bitarteko gazteentzat.

ostatua: familietan.

noiz: uztailean.

> **prezioan sartzen dena:**

Bidaia hegazkinez.

Garraioa aireportutik familiara.

Familian ostatua (mantenu osoa).

Astean 17 orduko ikasmateriala (dagokionean).

Egun osoko lau ibilaldi.

Kirol ekintzak.

Ekintza sozialak eta kulturalak.

Arduradunen laguntza.

Bidaia aseguruua.

Argibide bilera.

13+

ingeleza



6

prezioa:

EGONALDIA FAMILIAREKIN

Ikastolen Elkarteko

ikasleek:

2.500 €

Gainerakoek:

2.800 €

EGONALDIA FAMILIAREKIN +

INGELES ESKOLEKIN

Ikastolen Elkarteko

ikasleek:

2.700 €

Gainerakoek:

2.950 €

izen ematea:

Epea martxoaren 1ean irekiko da eta apirilaren 28an itxiko.

Izena emateko idatzi

enjoy@ehi.ikastola.eus

helbidera edota deitu

(0034) 94.435.43.40 telefonora.

Baldintza orokorrak izen emate fitxarekin batera azalduko dira.